




**Gatikako udala**  
Bizkaia

SARRERA	IRTEERA
	210
2018 MAR. 26	
	GATIKAKO UDALA


**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**  
Azpiegiturak eta Garapen  
Ekonomiko saila  
Donostia San Sebastian, 1  
01001 Gasteiz(Araba)  
Att: Arantza Tapia Otaegi.

Sailburu andre txit agurgarria,

Honekin batera, 2018ko otsailaren 28ko osoko bilkurean hartutako akordioaren ziurtagiria, "Gatikan autopista elektrikorik ez" plataformaren mozioaren onarpena jasotzen duen ziurtagiria bidaltzen dotsut.

Jaso ezazu agurrik beroena,

Gatikan, 2018ko martxoaren 26a.

  
**UDAL IDAZKARIA**



## Gatikako udala

Bizkaia

### IKER JACA ARRATIBEL, GATIKAKO UDALEKO IDAZKARI KONTUHARTZAILEAK

**EGIAZTATZEN DOT:** Gatikako Udalak, 2018ko otsailaren 28an ospatutako ohiko osoko bilkuran, beste batzuren artean, hitzez hitzezko akordio hau onartu eban:

#### 4. Gatikako Autopista Elektrikorik ez plataformaren mozioa.

Leixurik mozio hau irakurtzen du:

“Teleberrik 2018ko urtarrilaren 25ean, Frantzia eta Espainiaren arteko interkonexio elektrikoa Bizkaiko Golkotik proiektuaren berri eman zuen. Frantzia eta Espainiako **energia trukerako ahalmena handitzea duela helburu**, eta beste gauza batzuen artean, energia berriztagarriak bultzatzeko, elektrizitatea merkeagoa izateko, etab egingo dela aipatu zuen Teleberrik emandako albistean. Baita eskaera asko egoteagatik suministro-faltari erantzutea posible izango dela ere. Proiektua aurrera doala eta 2015erako amaituta egotea espero dela esan zuten.

**Objetibotasun gutxiko albistea** izan zen eta albiste horretan, **Arantza Tapia Eusko Jaurlaritzaren** Ekonomiaren garapen, lehiakortasun eta azpiegituren Sailburuak oso adierazpen larriak egin zituen: “Es buena noticia que se ponga en funcionamiento, que stamos mejor interconectados y que consigamos esa seguridad de suministro, calidad de suministro, a un precio adecuado. Por tanto, buena noticia ya decuada.”

- Lehendabizi, Gatikako Herri Plataformatik adierazi nahi dugu proiektuaren bultzatzaileek, REE eta RTE, gure herrian egin dituzten batzarretan ezin izan dutela baieztatu elektrizitatearen prezioa merketu egingo dela.

- Beste alde batetik, Frantziak eta Espainiak soberakindun gaitasun elektrikoa dute eta gaur egungo interkonexioa nahikoa baino gehiago da; berriki handituta izan da, gainera.

- Energia berriztagarriak bultzatuko direla diote baina errealitatea da, energia berriztagarrietan oinarritutako autokonsumoaren alorrean ahaleginak areagotu beharrean, tentsio oso altuko kableak eraman nahi dituztela Gatikatik Cubnezairaino, zentral nuklear batetik 40 m-ra dagoen herriraino.

- Gatikako herrian transformazio-gunea eraiki nahi dute. Herria apurtu nahi dute 50.000 m<sup>2</sup> inguruko azalera eta 20 metro baino gehiagoko altuera duen gunean eraikiz, eta hortik tentsio oso altuko kableak eraman ondoko herrietatik pasatuz, eta itsasotik Frantziaraino. Horrek ekarriko lukeen ingurumen impaktua eta osasunean eduki ditzakeen ondorioez ez du hitz egin, ez Teleberrik ez Arantza Tapiak ere ez.

- Bai Teleberrik baita Arantzak berak ere, albiste horretan emandako informazioa kontrastatu beharko luketeela uste dugu eta hala izan balitz, jakin beharko lukete proiektua oraindik parte-hartze fasean dagoel, ingurumen proiektuaren faltan, hau da, azken proiektua oraindik definitu



## Gatikako udala

### Bizkaia

gabe. Hala ere, Arantza Tapiak proiektu hau martxan jartzea berri ona dela adierazi du eta, inongo oinarririk gabe, REEK emandako argudio gehienak baieztatu ditu.

- Europar Batasunak zehazten duen parte-hartze fasean herritarrek 10000 alegazio baino gehiago aurkeztu dituzte proiektuaren kontra.

- Teleberriri eta Arantza Tapiari ahaztu zaie aipatzea Herri Plataformak edota herritarrek aurkeztutako alegazioez gain, Gatikako Udalak ere alegazioak aurkeztu eta adierazpen institucional bat onartu duela proiektuaren aurkako jarrera adieraziz. Hortaz, Gatikako Herriak bere osotasunean ez du proiektu hau begi onez ikusten. Herri oso batek ezetz esan dio hankarik ez bururik ez duen proiektu horri baina albistean ez da horren zehastasunik eman.

Horregatik guztiagatik, **Gatikako Udalak mozio hau onartzen du:**

**Gatikako Udalak idatziz Arantza Tapia sailburuari eta Teleberriri eskatuko die, Frantzia eta Espainiaren arteko interkonexio elektrikoa Bizkaiko Golkotik proiektuari buruz eman duten informazio publikoki zuzendu dezatela, eta proiektuari buruzko ondorengo adierazpenetan objektibotasunez hitz egitea"**

Bozkatu egiten da eta hau da emaitza:

Aldeko botoak: 5

2(Bildu)

3(GTI)

Aurkako botoak:

4(EAJ/PNV)

Beraz, mozioa onartzen da.

Gero EAJeko bozeramaile, Onintzek mozioa dela eta Gatikako EAJ taldeak prestatu duen erantzuna irakurtzen du.

"Gatikako Autopista elektrikoaren kontrako plataformak aurkezturiko mozioari ezetz bozkatuko diogu, ez proiektuaren kontra ez gaudelako, hori argi geratzea nahi dugu, Gatikako EAJ-PNV udal taldea proiektu honen kontra dago eta Gatikako Udalak ere bere kontrako jarrera argi utzi du.

Mozioan interkonexioen eta elektrizitate eta energiaren arloko hainbat datu aipatzen dira. Orain arte gure udalera modu ofizialean heldu diren datu bakarrak RED ELECTRICAK berak aurkeztutakoak dira, eta bestelako datuak, plataformak berak egindako adierazpenak (Iturria zein den ez dakigu), Eusko Jaurlaritzarako sailburu batek edo eta alderdi politiko batzuen adierazpenak dira.

Gure asmoa da, debate ideologicoa albo batera uztea, eztabaida hau zein modelo energetikoaren aldeko apostua egiten den da, eta Euskaditik haratago doan gaia da,



## Gatikako udala

Bizkaia

Espainiari eta Europari zuzenean dagokiona. Guk informazio argia eta objetiboa izan nahi dugu, ez interkonexio elektrikoaren inguruan aldeko edo kontrako postura izateko, hori norberak, herritargoa osatzen dugun norbanakook egin beharreko erreflexioa izango da, baizik eta Gatikari zuzenean afektatu ahal ditzaizkion aspektu guztiak zeintzuk diren jakin ahal izateko. Hori da gure ardura.


Uste dugu helburu honetan, ezer gutxi lortu dezakegula Teleberri eta Tapia sailburuari bere hitzak eta informazioa zuzendu dezatela eskatuz. Konfrontazioa lortu daiteke agian, baina gure taldeak nahi duena elkarlana da, eta informazio zuzena eta objetiboa lortzea.

Gure taldeak nahiago du hitz horiei mez ez egitea eta elkarlanean Gatikako Herrian proiektu horren kontra lan egitea. Batzutan Gatikako Autopista Elektrikoaren kontrako plataformarekin adose gongo gara eta beste batzuetan ez, gu, herritarraz aparte, herri ordezkariak garelako, eta guri dagokigulako zorrostasunez, arauen menpe eta objetibotasunez jardutea. “

Azaroaren 28ko 2568/1986 Erret/Dekretuak onetsitako Udalbatzaren Antolaketari, Jaurbideari eta Lege Jaurbideari buruzko Araudiaren 206. atalean jasotakoaz ohartarazten da, dagokion akta onartzean ondoriozko terminuen kaltetan gabe.

Honela jasota geratu daiten eta behar dan lekuan ondorio egokiak sortu dagiezan, ziurtagiri hau sinatzen dot , Gatican 2018ko martxoaren 20ean Alkate Andrearen oneritsiagaz.

O° E° ALKATEA



IDAZKARIA